

FISIOTERAPEUTAK

- 1.** HPBen aholkulariekin lankidetzan aritzea ebaluazio psikopedagogikoa egiteko, Motor-defizit larriaren ondoriozko HPB dituzten ikasleen garapen motorraren maila baloratuz.
- 2.** Mugimen-defizit larriaren ondorioz HPBak dituzten ikasleen mugimen-garapenik handiena lortzera bideratutako programak prestatzen parte hartzea, beste profesional batzuekin batera eta tutorearen koordinaziopean, curriculum-esparruaren barruan eta Norbanako Jarduera Plan baten barruan, ikaslearen aurrerapen- aukerak identifikatuz eta bere lanarekin zerikusia duten alderdiei buruz aholkatuz.
- 3.** Ikasle bakoitzaren Fisioterapiako Esku- hartze Plana garatzea eta gauzatzea, benetako baldintzetara egokitzeko.
- 4.** Esku-hartze fisioterapeutikoaren jarraipena eta ebaluazioa zehaztea, curriculumerako irisgarritasuna ahalbidetzea bilatzen duten beste programa batzuekin batera.
- 5.** Koordinazio-bileretan parte hartzea eta ikaslearekin jarduten duten gainerako profesionalekin koordinatzea, HPB aholkulariaren gidaritzapean eta orientabideekin eta tutorearen koordinazioarekin, aditu-irizpidea emanez eta ikaslearekin egin beharreko zereginen eredu gisa baliatuz, hezkuntza- fisioterapiaren ikuspegitik curriculuma errazago eskura dezan.
- 6.** Motor-defizit ondoriozko HPB dituzten ikasleen hezkuntza-erantzunean parte hartzen duten familiei aholku eta orientazioa ematea, beren esku- hartzearekin zerikusia duten alderdiei buruz.
- 7.** Esku hartzen duen ikasle bakoitzari buruzko dokumentazioa prestatzea (garapen motorraren mailaren hasierako ebaluazioa, Fisioterapiaren Esku-hartze Plana, ebaluazio-txostena ikasturtea amaitzean), bai eta urteko memoria ere.
- 8.** Irakasle-taldeari eta gainerako hezkuntza- profesionalei metodologia eta antolaketa- alderdiei buruzko aholkularitza ematea, bai eta banakako arretari buruzkoa ere, arreta ematen duten ikasleen parte- hartzea eta curriculumerako sarbidea errazteko.
- 9.** Irakasle-taldearekin lankidetzan aritzea proposamen didaktikoak ikasle bakoitzaren beharretara egokitzeko, defizit motorrak dituzten ikasleei parte-hartzea eta curriculumerako sarbidea errazteko.
- 10.** Lanpostuari dagokion beste edozein.